


# El II Congreso Internacional de Empleo y la Feria "*Merkalan*" de Empleo y Formación analizarán los retos y oportunidades para la creación de empleo de calidad

- **Organizados por el departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco**
- **21 y 22 de octubre, en el Palacio Kursaal de Donostia San Sebastián**
- Jamie Winders de la Universidad de Syracuse, Albert Cañigueral de Oiushare y Christopher Markou, de la Universidad de Cambridge
- **www.congresointernacionalempleoeuskadi2019.eus/**
- **www.merkalan.eus**
- **Numerosos expositores y actos en Merkalan**

VG 23 09 19

El "**II Congreso Internacional de Empleo" y la Feria "Merkalan" de Empleo y Formación, que se celebrarán los días 21 y 22 de octubre en Donostia-San Sebastián,** analizarán los retos y oportunidades para la creación de empleo de calidad. Según Marcos Muro, viceconsejero de Empleo y Juventud del Gobierno Vasco, "expertos como **Albert Cañigueral** cofundador de Oiushare, **Jamie Winders** directora del Instituto de Políticas para Sistemas Autónomos de la Universidad de Syracusa, y **Christopher Markou**, de la Universidad de Cambridge, expondrán diversas situaciones que pueden ser tenidas en cuenta en la gestión que administraciones, empresas y sociedad desarrollan para conseguir un empleo de mayor calidad"

Asimismo, **Heinz Koller** director regional para Europa y Asia central de la OIC, **Alexander Hijzen**, director de la Estrategia de Empleo de la OCDE, y **Loukas Stemitsiotis** director de análisis temático de la Dirección general de Empleo, Asuntos Sociales e Inclusión de la Comisión Europea ofrecerán la visión que las instituciones europeas ofrecen sobre el empleo de calidad.




Las jornadas contarán con la participación de expertos daneses, alemanes e italianos que hablarán sobre los **retos y oportunidades globales para la creación de empleo de calidad,** la gestión del empleo que realizan las instituciones europeas o iniciativas empresariales para crear puestos calidad, entre otros.

Organizados por el departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, ambos certámenes se desarrollarán los días **21 y 22 de octubre**, en el Palacio **Kursaal** de Donostia San Sebastián con la participación, entre otros, del británico **Deb Oxley** CEO de Employee Ownership Assotiation, la italiana **Fabiola di Loreto** directora General de la Confederación de Cooperativas de Italia, **Juan Manuel Sinde**, presidente de la Fundación Arizmendiarrieta, **Emma Navarro** vicepresidenta del Banco Europeo de Inversiones y **Gary Shaughnessy**, presidente de Zurich Foundation.

En las Jornadas intervendrán, entre otros especialistas**, representantes ministeriales** de Empleo de **Dinamarca** para exponer la estrategia para el empleo de calidad que allí se desarrolla, al igual que lo harán del ministerio de familia, Empleo y Asuntos Sociales de **Baviera** y de **Rhode Island**. En el encuentro intervendrá **Heinz Koller**, director regional de Europa y Asia Central de la OIT".

**Merkalan**

El II Congreso internacional de Empleo incorpora la **Feria Merkalan de Empleo y Formación organizada por Lanbide e**n el mismo Palacio de Congresos **Kursaal. L**a Feria Merkalan de Empleo y Formación promoverá y facilitará el contacto entre las empresas que tienen necesidades de contratación y las personas que se encuentran buscando activamente un empleo.

El recinto superará los 1.000 metros cuadrados y en su diseño y contenidos se han tenido en cuent-a las **necesidades específicas de las personas que utilizan los servicios de Lanbide.**

En esta cita internacional del Empleo organizada por el Gobierno Vasco **participarán empresas, instituciones, agentes sociales, estudiante**s de






formación profesional y universitarios y jóvenes que buscan su primer empleo. El año pasado el Congreso se realizó en Vitoria-Gasteiz.

# Enpleguaren Nazioarteko II. Kongresuak eta "*Merkalan*" Enplegu eta Prestakuntza Azokak aztertuko dituzte kalitateko enplegua sortzeko erronkak eta aukerak

- **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatu ditu**
- **Urriaren 21ean eta 22an, Donostiako Kursaal jauregian**
- Syracuseko Unibertsitateko Jamie Winders, Oiushare-ko Albert Cañigueral eta Cambridgeko Unibertsitateko Christopher Markou
- www.congresointernacionalempleoeuskadi2019.eus/
- www.merkalan.eus
- **Erakusketari eta ekintza ugari Merkalan azokan**

VG 19 09 23

Donostian, urriaren 21ean eta 22an, egingo diren **Enpleguaren Nazioarteko II. Kongresuan eta "Merkalan" Enplegu eta Prestakuntza Azokan** aztertuko dituzte kalitateko enplegua sortzeko erronkak eta aukerak. Marcos Muro Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gazteriako sailburuordeak adierazi duenez, "Oiushare-ren sortzaile **Albert Cañigueral** adituak, Syracusako Unibertsitateko Sistema Autonomoetarako Politiken Institutuko zuzendari **Jamie Winders** adituak eta Cambridgeko Unibertsitateko **Christopher Markou** adituak zenbait egoera azalduko dituzte, administrazioek, enpresek eta gizarteak, oro har, kalitate handiagoko enpleguak lortzeko garatzen duten kudeaketan aintzat har daitezen".

Era berean, **Heinz Koller** Lanaren Nazioarteko Erakundeko Europarako eta Asiarako eskualde-zuzendariak, **Alexander Hijzen** Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundeko Enplegu Estrategiako zuzendariak eta **Loukas**




**Stemitsiotis** Europar Batasunaren Enpleguko, Gizarte Gaietako eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiko Gai Analisietako zuzendariak azalduko dute Europako erakundeek kalitateko enpleguaren inguruan duten ikuspegia.

Jardunaldietan Danimarkako, Alemaniako eta Italiako adituek ere parte hartuko dute, eta **kalitateko enplegua sortzeko erronka eta aukera nagusiei** buruz hitz egingo dute, baita Europako erakundeek egiten duten enpleguaren kudeaketari buruz edo kalitateko lanpostuak sortzeko enpresa-ekimenei buruz ere, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak antolatuta, kongresu eta azoka horiek urriaren **21ean eta 22an** egingo dira Donostiako **Kursaal** jauregian. Besteak beste, parte hartuko dute **Deb Oxley** Employee Ownership Assotiation elkarteko buru exekutiboak, **Fabiola di Loreto** Italiako Kooperatiben Konfederazioko zuzendari nagusiak, **Juan Manuel Sinde** Arizmendiarrieta fundazioko presidenteak, **Emma Navarro** Europako Inbertsio Bankuko zuzendariordeak eta **Gary Shaughnessy** Zurich Foundation fundazioko presidenteak.

Jardunaldietan parte hartuko dute, beste aditu batzuen artean**, Danimarkako Enplegu Ministerioko ordezkariek** —bertan garatzen duten kalitateko enplegurako estrategia azaltzeko—, baita **Bavariako** Familia, Enplegu eta Gizarte Gaietako ministerioko ordezkariek eta **Rhode Islandeko** ordezkariek ere. Topaketan esku hartuko du **Heinz Koller** Lanaren Nazioarteko Erakundeko Europarako eta Asiarako eskualde-zuzendariak.

**Merkalan**

Enpleguaren Nazioarteko II. Kongresuak barnean hartzen du **Kursaal** jauregian bertan **Lanbidek** antolatzen duen **Merkalan Enplegu eta Prestakuntza Azoka.** Merkalan Enplegu eta Prestakuntza Azokak kontratazio-beharrak dituzten enpresen eta enplegua modu aktiboan bilatzen ari diren pertsonen arteko harremanak sustatu eta erraztuko ditu.




Barrutiak 1.000 metro karratutik gora izango ditu, eta azokaren diseinuan eta edukietan kontuan izan dira **Lanbideren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen premia espezifikoak.**